

JUNIOR MAILAKO NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

18 urtez azpiko jokalarientzako Txapelketa hau 2009.go urtarrilaren 17tik otsailaren 14ra jokatu zen, Juslarrotxa Civivox Zentroan. Liga moduan jokatu zuten bost parte hartzaileek. Jokalari bakoitzak 90 minutu zituen partida osatzeko, gehi 30 segundo jokaldiko.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Daniel Zamarbide Iñarrea – 3'5 puntu.**
- 2) Aritz Idiazabal Troyas – 3 puntu.
- 3) Javier Sevilla Subiza – 2'5 puntu.
- 4) Luis David Jimenez Almeida – Puntu bat.
- 5) Marina Sevilla Subiza – 0 puntu.

Daniel Zamarbidek Oberena taldean jokatzen du. Gaztea izan arren, dagoeneko palmares oparoa dauka. 2.079 puntu dauzka FIDE eloan; 2.027, Euskal eloan; 2.108, Nafarroako eloan.

Lehenengo partidari Aritz Idiazabalek eta Javier Sevillak berdindu zuten, eta hirugarrenean Daniel Zamarbidek Javier Sevilla gainditu zuenez, Oberenako jokalaria aski zuen laugarren partidari Aritz Idiazabalekin berdintzea (eta bosgarrenean Marina Sevillari nagusitzea). Eraitza horietan gertatu ziren eta Daniel Zamarbide geratu zen txapeldun.

Polemika izan zuen Txapelketaren data. Daniel Zamarbide sailkatuta dago Nafarroako Banakako Txapelketako Maila Nagusi Berezian jokatzeko eta horrek eragin zuen data aurreratzea. Hori ez zen jokalaria den gustuko izan, data berriak Neguko Txapelketarekin talka egiten zuelako. Baina halaxe erabaki zuen Federazioak. Jokalari garrantzitsu batzuek Neguko Txapelketa jokatzeko erabaki zuten, ordea.

Aritz Idiazabal txapeldunordeak Gazte Berriak taldean jokatzen du. Javier Sevilla hirugarren sailkatuak, Luis David Jimenez Almeida laugarrenak eta Marina Sevilla bosgarrenak Orvina taldean jokatzen dute.

PALMARES.

2007-08ko denboraldian: **Imanol Martinez Salas**, garaile.

2008-09ko denboraldian: **Daniel Zamarbide Iñarrea**, garaile.

2009-02-14.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.